Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA EIBARKO COLISEO ANTZOKIKO ARETOETAKO ZINE KOMERTZIALAREN PROGRAMAZIORAKO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE PELÍCULAS PARA LA PROGRAMACIÓN DE CINE COMERCIAL DE LAS SALAS DEL COLISEO ANTZOKIA DE EIBAR.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea zine-programazioa lantzea, pelikulez hornitzea eta deskarga automatikoko sistema jartzea da. Hortaz, Eibarko Udaleko Kultura Sailak programazio hori onartu ondoren, enpresa adjudikaziodunak programatutako tituluak aurkitu, erakusketa-eskubideak kudeatu eta zabalkunderako dokumentuak eta afixak entregatuko ditu. Enpresak filmak deskargatzeko sistema automatikoa izango du proiekzioetarako, Coliseo Antzokiko proiektoreen ekipoekin bateragarria.

1. OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto del contrato es la elaboración de la programación de cine, suministro de películas y su sistema de descarga automática. Ello conlleva, que tras la aprobación de dicha programación por parte del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar, la empresa adjudicataria localizará los títulos programados, gestionará los derechos de exhibición, y la entrega de documentos de difusión y afiches. La empresa dispondrá para las proyecciones de un sistema de descarga de películas compatible con los equipos de los proyectores del Coliseo Antzokia.

2. ZINE-PROGRAMAZIOARI ETA PELIKULEN HORNIKETARI BURUZ.

Zine komertzialaren programazioak estreinaldiko 120 pelikula hornitzea dakar. Honako parametroak beteko dituzte:

A. Zine komertzialaren programazioan, aldi berean hiru proiekzio eman ahal izango dira gehienez, Coliseo Antzokiko honako aretoetan:

- **Beheko solairuko areto txiki bietan** pelikulak ematea. Proiekzioak larunbat, igande eta astelehenetan, urtean 125 egunetan.

  1. Aretoa, 74 eserlekurekin + 2, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Edukiera 21 eserlekuraino murriztuko da osasun-agintariek hala adierazten dutenean.
  2. Aretoa, 84 eserlekurekin + 2, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Edukiera 21 eserlekuraino murriztuko da osasun-agintariek hala adierazten dutenean.

- Antzoki-aretoa, 504 eserlekurekin + 6, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, urtean 100 egunetan. Edukiera murriztuko da osasun-agintariek hala adierazten dutenean.

- Aste barruan film klasikoak edo dokumentalak proiektatuko dira.

2. SOBRE LA PROGRAMACIÓN DE CINE Y EL SUMINISTRO DE LAS PELÍCULAS.

La programación de cine comercial supone el suministro de 120 películas de estreno. Se ajustará a los siguientes parámetros:

A. Programación de cine comercial de hasta tres proyecciones simultáneas, en las siguientes salas del Coliseo Antzokia:

- La proyección de películas en las **dos salas pequeñas de la planta baja** Proyecciones los sábados, domingos y lunes durante 125 días al año:
  Sala 1, con 74 butacas + 2 para personas con movilidad reducida. El aforo se reducirá cuando así lo indiquen las autoridades sanitarias hasta las 21 butacas.
  Sala 2, con 84 butacas + 2 para personas con movilidad reducida. El aforo se reducirá cuando así lo indiquen las autoridades sanitarias hasta las 21 butacas.

- La proyección de películas en la sala de Teatro, con 504 butacas + 6 para personas, durante 100 días al año. El aforo se reducirá cuando así lo indiquen las autoridades sanitarias.

- Entre semana se proyectarán las películas clásicas o documentales.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **47b2bc77919f83f914446837294ee477579e9727**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500005965**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**27/11/2025 10:18:42**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

B. Egunak eta ordutegiak:

- Programazio-egunak eta -ordutegiak:
- Larunbatak: saioak, 17:00, 19:45 eta 22:30.
- Igandeak: 17:00 eta 20:00
- Astelehenak: 19:30

Udalaren kultura-programazioak edo antzokiaren instalazioak erabiltzea beharrezkoa egiten duten bestelako ekitaldiek zine-programazioa alda dezakete, gehienez ere urtean 80 egunetan. Egun horiek zeintzuk diren kontratuaren adjudikaziodunari jakinaraziko zaizkio, gutxienez hamabost egun lehenago.

C. Programazioa honako urte-sasoitan izango da: Urtarrilaren lehen asteburutik uztailaren hirugarren astera; irailaren lehen asteburutik abenduaren azken asteburura. Ez da pelikularik proiektatuko abenduaren 24an eta 31n, ezta urtarrilaren 1ean ere.

D. Pelikulen horniketa, bere garraio fisikoarekin edota pelikulen gestio telematikoarekin (gakoak, konexioa, eta abar); horrek dakar:

- Pelikula Coliseo Antzokira fisikoki garraiatzea.
- Pelikulen gestio telematikoa (gakoak, konexioa, KDMak, eta abar).
- Pelikulen sustapenerako kartel eta materialen hornidura, eta Coliseo Antzokira fisikoki garraiatzea.

E Enpresa adjudikatzaileak proposatuko dituen programazioaren ezaugarriek gutxieneko hauek bete beharko dituzte:

- Programazioak era guztietako generoak jasoko ditu, eta bermatu egingo du estreinaldiko pelikulen eta zine independentearen edota Europako zinemaren proiekzioa, azken film horiek, gutxienez, urtean 50 izango dira.
- Programazioak estreinaldiko pelikulak izango ditu, ahalik eta epe laburrenean, eta estreinalditik ez da inolaz ere ez da hamabost eguneko epea gainditukо.
- Programazioak umeentzako pelikulen saio bat gutxienez jaso behar du igandeetan, 17:00etan. Umeentzako saio gehiago egon daitezke. Ordutegi hori aldatu ahal izango da, pelikularen iraupenaren arabera.
- Programazioak zinema-emanaldien zirkuitu komertzialera iristen diren euskarara bikoiztutako edo egindako film guztiak jasoko ditu. Baita ere, zirkuitu komertzialera iritsi gabe Eibarko Udaleko Kultura Sailak eskatzen dituen pelikulak ere.

B. Días y horarios:

- Días y horarios de programación:
- Sábados: sesiones de 17:00, 19:45 y 22:30.
- Domingos: 17:00 y 20:00.
- Lunes: 19:30.

La programación cultural del Ayuntamiento u otros eventos que hagan necesaria la utilización de las instalaciones del teatro, podrán alterar la programación de cine elaborada hasta un máximo de 80 días al año. Estos días se comunicarán al adjudicatario del contrato con, al menos, quince días de antelación.

C. La programación tendrá lugar en los siguientes períodos del año: de primer fin de semana de enero a tercer fin de semana de julio; y de primer fin de semana de septiembre a último fin de semana de diciembre. No se proyectarán películas el 24, y el 31 de diciembre, ni el 1 de enero.

D. El suministro de las películas, con su transporte físico y/o gestión telemática de dichas películas (aportación de claves, conexión, etc…)lo que supone:

- Transporte físico de la película a Coliseo Antzokia.
- Gestión telemática de dichas películas (aportación de claves, conexión, KDMs, etc..).
- Suministro de la cartelería y materiales editados para la promoción de las películas, con su transporte físico al Coliseo Antzokia.

E. Las características de la programación a proponer por la empresa adjudicataria tendrá estos mínimos:

- La programación incluirá todo tipo de géneros y garantizará la proyección de películas de estreno y las de cine independiente y/o europeo, estas últimas con un mínimo de 50 anuales.
- La programación contemplará la provisión de películas de estreno en el plazo más breve posible, y en ningún caso se rebasará el plazo de quince días desde el estreno.
- La programación incluirá al menos una sesión de cine infantil todos los domingos a las 17:00 horas. Estas sesiones se podrán incrementar. Este horario podrá ser alterados en función de la duración de la película.
- La programación incluirá todas las películas realizadas o dobladas al euskera que lleguen al circuito comercial de exhibición de cine. También aquellas que no llegando al circuito comercial sean requeridas por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **47b2bc77919f83f914446837294ee477579e9727**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500005965**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**27/11/2025 10:18:42**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

- Kultura Sailak proposatutako film klasikoak proiektatuko dira programazioan.

- Programazioaren berri Eibarko Udalaren Kultura Sailari helarazi behar zaio proiekzioen aurreko hilabetearen bigarren astean onartua izan eta haren zabalkundea egin ahal izateko eta Udalak kaleratzen duen Kultur Gidan sartzeko. Programazio hori ezingo da aldatu.

- Astelehena Ikuslearen eguna da eta egun horretan, sarrera-txartelaren ohiko prezioa jaitsi egingo da. Astelehenetako programazioak gutxienez egile-pelikularen bat edo zine independente edo klasikoko pelikula bat jaso beharko du.

- Programazioak Europar Batasuneko kide diren estatuetako lan zinematografikoei dagokien pantaila-kuota beteko du, edozein bertsiotan. Hartara, urte akaberan, urtean zehar programatu diren saio guztien % 25 gutxienez Batasuneko lan zinematografikoak izango dira. Hiru emanaldi-aretorekin osatutako konplexu zinematografikoa denez, aurreko atal hori betetzeko orduan, osotasunean hartuko da hiru aretoek osatzen duten konplexua. Horrela, zenbaketa, urte osoan ematen diren film guztiak kontuan hartuta egingo da, esandakoa betetzen den ikusteko. Zineari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legean eta hura garatzen duten errege-dekretuetan xedatutakoa beteko da.

- Programazioak zuzeneko edo grabatutako kultura-ekitaldien proiekzioak jasoko ditu, hala nola operak, kontzertuak... Ekitaldi horietako sarreren prezioak ekoizleek eta banatzaileek ezartzen dutenaren arabera arautuko dira, eta dagozkien hobariak aplikatuko zaizkie.

- Programazioak, Eibarko Udaleko Kultura Sailak eskatuta, zirkuitu komertzialean sartzen ez diren pelikulak, dokumentalak eta bestelakoak jasoko ditu.

- Enpresa adjudikaziodunak pelikula bakoitzaren adinaren araberako sailkapenaren berri emango du, bai eta haren iraupena ere.
- Sarrera-txartelen salmentako kanalak Eibarko Udalak erabiltzen dituenak izango dira.

3. PELIKULEN TIPOLOGIA, KATEGORIA BAKOITZEAN AURREIKUSITAKO ALOKAIRUAK ETA ESKAIN DAITEZKEEN GEHIENEKO PREZIOAK.

- La programación incluirá la proyección de películas clásicas propuestas por el Departamento de Cultura.
- La programación tendrá que ser puesta en conocimiento del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar el lunes de la segunda semana del mes anterior a las proyecciones para ser aprobada, poder realizar su divulgación e incluirla en la guía cultural que edita el Ayuntamiento. Dicha programación no podrá ser alterada.
- El lunes se contempla como día del espectador/a y tendrá una reducción con respecto al precio normal de las entradas. La programación de los lunes deberá incluir al menos la proyección de una película de autor, cine independiente o clásico.
- La programación cumplirá con la cuota de pantalla de obras cinematográficas de Estados miembros de la Unión Europea en cualquier versión, de forma tal que, al concluir cada año natural, al menos el 25 por 100 del total de las sesiones que se hayan programado sea con obras cinematográficas comunitarias. Dado que se trata de un complejo cinematográfico compuesto por tres salas de exhibición, el cumplimiento de las proporciones anteriormente señaladas podrá ser ejecutado por el complejo en su conjunto, computándose el total de sesiones proyectadas por el mismo anualmente. En este sentido se regirá por la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine, y reales decretos que la desarrollan.
- La programación incluirá proyecciones de eventos culturales en directo o en diferido, como pueden ser óperas, conciertos… Los precios de las entradas de estos eventos se regirán por lo que estipulen las productoras y distribuidoras, y a los mismos se le aplicarán las oportunas bonificaciones.
- La programación incluirá por solicitud del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar películas, documentales y otras que no entren en el circuito comercial.
- La empresa adjudicataria facilitará la calificación obligatoria por edades de cada película, así como su duración.

- Los canales de venta de entradas serán los utilizados por el Ayuntamiento de Eibar.

3. TIPOLOGÍA DE LAS PELÍCULAS, ALQUILERES PREVISTOS POR CATEGORÍA Y PRECIOS MÁXIMOS A OFERTAR.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **47b2bc77919f83f914446837294ee477579e9727**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500005965**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**27/11/2025 10:18:42**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

1.TALDEA.- Egile-filmak, kultuko filmak, egile hasiberriak, dokumentalak, Europako eta beste lekuetako filmak	**GRUPO 1.- Películas de autor, películas de culto, de autoría novel, documentales, de procedencia europea y otras**
Gehieneko prezioa pelikula bakoitzeko: 420 €	Precio máximo por película: 420 €
Aurreikusitako urteko alokairuak. 36	Alquileres anuales previstos. 36
2. TALDEA: egile-filmak eta ibilbide bat duten egileen filmak, Europakoak eta beste toki batzuetakoak, izaera komertzial halako bat dutenak.	**GRUPO 2: Películas de autor y de autoría de personas con cierta trayectoria, de procedencia europea y otras regiones, de cierto carácter comercial.**
Gehieneko prezioa pelikula bakoitzeko: 525 €	Precio máximo por película: 525 €
Aurreikusitako urteko alokairuak. 40	Alquileres anuales previstos. 40
3. TALDEA: egile aitortuen pelikula komertzialak	**GRUPO 3: Películas comerciales de autores reconocIdos**
Gehieneko prezioa pelikula bakoitzeko: 630 €	Precio máximo por película: 630 €
Aurreikusitako urteko alokairuak: 20	Alquileres anuales previstos: 20
4. TALDEA: film komertzialak, takillan arrakasta dutenak, egile ospetsuenak, *majors*-ek eta ekoizleek oso komertzialtzat jotzen dituztenak.	**GRUPO 4; Películas comerciales, de tirón en taquilla, de autores reconocidos, que las majors y productoras consideren muy comerciales.**
Gehieneko prezioa pelikula bakoitzeko: 735	Precio máximo por película: 735
Aurreikusitako urteko alokairuak: 10	Alquileres anuales previstos 10
5. TALDEA: "*Takillaren araberako"* pelikulak	**GRUPO 5: Películas *"a taquilla"***
Gehieneko prezioa pelikula bakoitzeko: Takillaren % 60 gehienez emanaldiko lehen asterako; % 50 bigarren asterako; eta % 45 hirugarren asterako eta hurrengoetarako, halakorik balego. Kasu guztietan, portzentaje hori sarreren BEZa eta egiletza-kanona deskontatu ondoren kalkulatuko da.	Precio máximo por película: Un 60 % máximo de taquilla para la primera semana de exhibición, un 50% para la segunda semana de exhibición, un 45% para tercera semana y posteriores si las hubiera. En todos los caso ese porcentaje se calculará una vez descontado el IVA d elas entradas y el canon de autoría
Aurreikusitako urteko alokairuak: Urtean 15 pelikula gehienez (kontratistak aukeratuko ditu).	Alquileres anuales previstos: Máximo de 15 películas al año (a elección del contratista).
Sarreren egungo prezioak hauexek dira:	Los precios actuales de las entradas son los siguientes:
• 5,5 € ohiko sarrera. • 3,50 € Coliseoaren laguna sarrera (gutxi gorabehera saltzen diren sarreren % 10). • 4 € larunbat eta igandeetako 17:00etako umeentzako saioen sarrera. • 4 € ikuslearen egunean, astelehenetan, jaieguna ez bada; jaieguna bada, ohiko sarrera aplikatuko da. • 3D pelikuletan ohiko sarrerari 2 € gehituko zaizkio.	• 5,5 € la entrada cine normal. • 3,50 € entrada cine Coliseoren laguna (aproximadamente un 10% de las entradas que se venden). • 4 € entrada de las sesione infantiles de cine de las 17:00 horas de los sábados y domingos. • 4 € entrada día del espectador, los lunes, excepto cuando éste sea festivo, que se aplicará la entrada de cine normal. • Las películas en 3D se recargarán en 2 €..
6. TALDEA: grabatutako kultur ekimenen proiekzioa, hala nola kontzertuak, operak, film klasikoak…	**GRUPO 6: Proyección en diferido de eventos culrurales como conciertos, operas, películas clásicas….**
Gehieneko prezioa ekimeneko: 500 €	Precio máximo por evento: 500 €

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

Untzaga plaza, 1 ⌇ 20600 EIBAR Gipuzkoa ⌇ Tlf. 943 70 84 00 ⌇ Faxa 943 70 84 20 ⌇ e-mail: pegora@eibar.net ⌇ www.eibar.net

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **47b2bc77919f83f914446837294ee477579e9727**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500005965**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**27/11/2025 10:18:42**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Aurreikusitako urteko ekimenak: 6

Eventos anuales previstos: 6

4. EMANALDIAK ALOKATUTAKO PELIKULA BAKOITZEKO

Udalak alokatutako pelikula 2 astez eman ahal izango du, bidezko deritzon aldi guztietan, alokatutako prezioa igo gabe."Takillaren araberako" pelikuletan, epe hori luzatu ahal izango da aldeak ados jarri ondoren.

4. EXHIBICIONES POR PELÍCULA ALQUILADA

El Ayuntamiento podrá exhibir la película alquilada durante 2 semanas, cuantas veces lo considere oportuno, sin que se vea incrementado el precio del alquiler. En las películas a taquilla este plazo se podrá ampliar de acuerdo con las partes.

5. EMANGO DIREN PELIKULEN HAUTAKETA.

Modu honetara jokatuko da kontratua egikaritzean.

1.- Enpresa adjudikaziodunak programatu aurreko hilaren bigarren asteko astelehenean aurkeztuko du programazio-proposamena, aurrekontuarekin batera, zeina goiko puntuko taulako filmen tipologiaren arabera banakatuko baita.

2.- Eskainitako taldekako prezioak gehieneko prezioak izango dira, eta kontratuaren adjudikaziodunak ezingo ditu inolaz ere gainditu. Hala, talde jakin bateko filmak Udalari eskainiko zaizkio gehieneko prezioa berdintzen edo jaisten duen zenbatekoan.

Kultura Sailak programazioa onartuko du, eta pelikulak onartu eta baztertu ahal izango ditu.

5. SELECCCIÓN DE PELICULAS A EXHIBIR.

Se procederá de la siguiente manera en la ejecución del contrato.

1.-La empresa adjudicataria presentará la propuesta de programación el lunes de la segunda semana del mes anterior a ser programadas, junto con el presupuesto desglosado según la tipología de películas del cuadro del punto anterior.

2.- Los precios por grupo ofertados tendrán carácter de precios máximos que en ningún caso podrán ser sobrepasados por el adjudicatario del contrato. Así, las películas de un determinado grupo se ofrecerán al Ayuntamiento en un importe que iguale o rebaje el precio máximo ofertado

La programación será aprobada por el Departamento de Cultura, quién podrá incorporar y rechazar películas en la misma.

6. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN KARGU GERATZEN DIREN GASTUAK.

- Pelikulen ordainketa.
- Konexioari, pelikulen garraioari, publizitateari eta sustapenari dagozkien gastuak.
- Filmak banatzeagatik sortzen diren zergak.
- Enpresa den aldetik legeak eskatzen dizkion gainerako gastu guztiak.
- Pelikulen publizitate-euskarri egokiak.

6. GASTOS A CARGO DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA.

- El pago correspondiente al suministro de las películas.
- Los gastos varios correspondientes a conexión o transporte de películas, publicidad y promoción.
- Los impuestos que se devenguen por la distribución de las películas.
- Todos aquellos que como empresa distribuidora exijan las leyes.
- Los soportes publicitarios oportunos de las películas.

7. PROIEKZIO-EKIPOAK.

Udalak hiru proiektore ditu Coliseo Antzokiko hiru zinema-aretoetarako.

7. EQUIPOS DE PROYECCIÓN.

El Ayuntamiento dispone de tres proyectores para las tres salas de cine del Teatro Coliseo.

8.- FILMAK BANATZEN DITUZTEN ENPRESEN AKREDITAZIOA

Lizitatzaileak lankidetza, harreman komertzial edo indarrean dauden akordioak egiaztatu beharko ditu,

8.- ACREDITACIÓN DE EMPRESAS DISTRIBUIDORAS DE PELICULAS

El licitador deberá acreditar la colaboración, relación comercial o acuerdos vigentes con un mínimo de diez (10) empresas distribuidoras de películas.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **47b2bc77919f83f914446837294ee477579e9727**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500005965**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**27/11/2025 10:18:42**

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

gutxienez filmak banatzen dituzten hamar (10) enpresarekin.
Betekizun hori egiaztatzeko, erlazio horiek frogatzen dituzten baliozko agiriak aurkeztu beharko dira (kontratuak, akordioak, ziurtagiriak edo dokumentu baliokideak).

Gutxieneko baldintza hori betetzen ez bada, lizitatzailea kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko da.

La acreditación de este requisito se realizará mediante la presentación de documentación válida que demuestre dichas relaciones (contratos, acuerdos, certificaciones o documentos equivalentes).

El incumplimiento de este requisito mínimo comportará la exclusión del licitador del procedimiento de contratación.

KULTURA ALORREKO ZUZENDARIA

EL DIRECTOR DEL AREA DE CULTURA

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **47b2bc77919f83f914446837294ee477579e9727**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202500005965**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**27/11/2025 10:18:42**